




**Lankidetza  
proposamena**

# UNIBERTSITATEA

2025 | 2026 Kurtsoa

Mugarik gabeko  
Ekonomilariak



Economistas  
sin Fronteras



# Aurkibidea

|                                                                    |            |
|--------------------------------------------------------------------|------------|
| <u>SARRERA .....</u>                                               | <u>.03</u> |
| <u>SENTSIBILIZAZIO SAIOAK .....</u>                                | <u>.04</u> |
| <u>IRAKASLEENTZAKO ZERBITZU GEHIGARRIA .....</u>                   | <u>.07</u> |
| <u>GRAL/MAL-EN KOTUTORIZAZIOA.. .....</u>                          | <u>.09</u> |
| <u>BIDEZKO EKONOMIA BATEN FORMAKUNTZA ETA MOBILIZAZIOA.. .....</u> | <u>11</u>  |
| <u>BALIABIDE DIDAKTIKOAK. ....</u>                                 | <u>.18</u> |
| <u>EL NIDO. Plataforma birtuala. ....</u>                          | <u>.19</u> |
| <u>JARRI GUREKIN KONTAKTUAN. ....</u>                              | <u>20</u>  |



# Sarrera

**Bidezko ekonomia baten alde egiten dugu.**

Mugarik gabeko Ekonomialariak-etik **ekonomia pertsonen eta planetaren zerbitzura egon behar duela uste dugu**. Horregatik, denbora daramagu ikasgeletan sartzen, **Ekonomia Sozial eta Solidarioa modu praktiko eta errealean hurbilduz**.

Gure ustez, **hezkuntza funtsezko gunea da gizarte bidezkoago, inklusiboago eta iraunkorrago baterantz aldaketa sakona bultzatzeko**. Azken urteetan **Bigarren Hezkuntzan (DBH eta Batxilergoa), Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean** lan egin dugu, teoria eta praktika aurkitzen diren espazioak sortuz, Ekonomia Sozial eta Solidarioa utopia bat ez dela erakusteko, pertsonen ongizatea eta ingurumenaren zaintza bermatzen duen eredu bideragarri bat baizik.

Ikasgeletan eta hezkuntzan esku hartzeko dugun modua **askotarikoa eta malgua** da. Hainbat jarduera eremutatik egiten dugu, ikasleei hemen ekartzen dizkiegun ideiak barneratzen lagunduko dieten **metodologia berritzaile eta desberdinekin**. Sentsibilizazio-saioak ematen ditugu, eztabaida eta hausnarketa zabaltzeko; ikuspegi hegemonikoak zalantzan jartzen dituzten irakurketa kritikoa lantzen dugu; eta mobilizazio-espazioak sustatzen ditugu, non ikasleek eraldaketa soziala hurbiletik eta egunerokotasunetik hasten dela senti dezaketen.

Jarraian aurkezten ditugun proposamenak formatu presentzialean edo birtualean egin ahal izango dira, ikasgaiak eta dinamikak egokituta, ikuspegi batez ere praktikoa, parte hartzailea eta eraldatzailea izaten jarrai dezaten.



# Sentsibilizazio saioak

## Helburuak

Gaur egungo eredu ekonomikoaren eta haren gizarte eta ingurumen inpaktuaren aurrean **begirada kritikoa** sustatzea.

**Elkartasunaren, justizia sozialaren eta jasangarritasunaren** inguruko baloreak sustatzea.

Ikasleek **aukera eraldatzaile alternatiboen eraikuntzan** aktiboki parte har dezaten bultzatzea.

## Metodologia

**Parte hartzailea eta dinamikoa.** Elkarrekintza eta ikaskuntza kolektiboa lehenestea, parte hartzeko tresnen bidez, hala nola, *Mentimeter, Jamboard o Padlet*.

**Kasu errealak eta hubileko adibideak.** Ekonomia bidezkoagoak eta eraldatzaileagoak egiteko beste modu batzuen arrakasten kasuen adibideak erakusten ditugu.

**Sormen tresnak.** Talde dinamikak, eztabaidak, jolasak eta ikus entzunezko baliabideak, parte-hartzea eta kontzeptuen asimilazioa sustatzeko



Hasierara  
buelatu



# Sentsibilizazio saioak

## Gaiak eta edukiak

### Ekonomia Sozial eta Solidarioa

**Ekonomia modu justu eta jasangarri batean egin daiteke?**

Gaur egungo sistema ekonomikoak sortzen dituen desberdintasunen analisia egiten dugu eta **bizitza erdigunean** jartzen dituen eredu ekonomikoak deskubritzen ditugu.



### Ekintzailtza Soziala

Ekintzailtzaren kontzeptua, haren mitoak eta begirada aztertzen ditugu, sistemak itzultzen digun onunarik handienean zentratuta. Pertsonak eta guztion ongizatea lehenesten dituen **ekintzailtza** deskubritzen dugu, fenomeno hau **gizartea eraldatzeko tresna gisa** tratatuz.

### Ekonomia Zirkularra

Ekonomia linealaren gaurko ereduaz azagutzen dugu, nola funtzionatzen duen eta gizartean zein eragin dituen aztertuz; hala, **eredu zirkularrari sarrera ematen diogu**, bidezkoa, jasangarriagoa eta ingurumenarentzat eta gizartearentzat onuragarriagoa dena.



Hasierara  
buelatu

# Sentsibilizazio saioak

## Gaiak eta edukiak

### Ekonomia Feminista

Ekonomia genero ikuspuntutik aztertzea, **zaintzak eta genero desberdintasunak** ikustaraziz.

Ikustezin bihurtutako lanek bizitzari nola eusten dioten eta egungo gizartearen garapenerako ezinbestekoak direla ulertzea du helburua.



### Interseksionalitatea

LGTBI+ mugimenduaren eta feminismoaren ikuspuntuak zapalkuntza eta **diskriminazio sozial mota desberdinei buruzko kontzientziazioa sustatzea** eta zapalkuntza mota desberdinak nola gurutatzen diren ikertzea da.

### Canvas Soziala

Eraldaketa sozialeko, berdintasuneko eta jasangarritasuneko balioak dituen proiektu batek nola funtzionatzen duen ezagutzea. Canvas Sozialaen ikuspegia ideiak lurreratzeko eta **bidezkoak eta solidarioak diren ekimneak martxan jartzeko** erabiltzen da.

### Kontsumo arduratsua

Gure erosketen erabakien inpaktuen inguruan hausnartzen dugu eta alternatiba sostengarriak esploratzen ditugu. Hemen, **SARETUZek** laguntzen gaitu (Donostiako kontsumo arduratsuaren sarea).

### Finantza Etikoak

Gaur egungo banku sistemak nola funtzionatzen duen ezagutzea. Finantza aukera gardenak, solidarioak eta espekulazioz kanpo daudenak aurkitzea. Saio hauetan **Finantza Etikoak Elkarteak** laguntzen gaitu.



Hasierara  
buelatu

# | Irakasleentzako laguntza gehigarria

**Hezkuntza** ikasleen zein irakasleen **erakaldeta-prozesu kolektibo gisa** ikusten dugu, pentsamendu kritikoaren gaitasuna handitu eta haren transmisioa laguntzen dituen trensenetatik sortua.

Horregatik, kurtso honetan, irakasleei eduki kritikoak eta metodologia parte hartzaileak bereganatzen lagunduko diegu; **interesa dutenei banakako laguntza zerbitzua eskainiko diegu.**

## Helburuak

- Irakasleei haien irakasgaietan **justizia sozialean, jasangarritasunean eta berdintasunean oinarritutako balioak integratzen laguntzea.**
- Irakasleek **Ekonomia Sozial eta Solidarioari lotutako edukiak modu autonomoan transmititzearen** ahalmena bultzatzea.

## Metodologia

- **Baterako diagnostikoa:** gelako beharrak eta helburuak entzuten ditugu.
- **Neurrirako diseinua:** Kurrikulumera egokitutako baliabideak eta dinamikak proposatzen ditugu.
- **Material praktiko eta erakargarriak:** gida didaktikoak, fitxak, ikus-entzunezko materialak eta jarduera proposamenak.
- **Hurbileko laguntza:** jarraipena eta laguntza ikasgelan inplementatzeko.



Hasierara  
buelatu

**1**

### **AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA**

Hasierako ebaluazioa, gelako  
beharrak eta irakaslearen  
testuingurua.



**2**

### **BALIABIDE DIDAKTIKOAK**

Ikasleekin lantzeko kontzeptu  
eta jarduera praktikoak  
azaldu.



**3**

### **JARRAIPENA**

Etengabeko laguntza ikasturtean  
zehar.

Ikaskuntzen sistematizazioa  
eta erraztutako materialen  
berrikuspena.



# | GRAL/MAL-en kotutorizazioak

Gero eta ikasle gehiagok ekonomia kritiko eta eraldatzaile batera bideratu nahi dute **Gradu Amaierako Lana (GRAL)** edo **Master Amaierako Lana (MAL)**. Hala ere, ez da beti erraza izaten: material alternatiboak, baliabide akademiko eguneratuak eta, batez ere, ekonomia ulertzeko eta praktikatzeko beste modu batzuk eraikitzen zuzenean lan egiten duten erakundeekiko harremanak falta dira.

Gure laguntza ohiko laguntza akademikotik harago doa. Hiru modutan egiten dugu:

1. Ekonomia kritikoa lantzen duten **materialak** erraztuz. (Bibliografia, ikerketak, hezkuntza-baliabideak...)
2. EsF-ren lan eremuetan inspiratutako **ikerketa ildoak proposatuz**.
3. Ikasleak **ESSko sareekin eta esperientziekin konektatuz**, landa-lana egiteko.



Hasierara  
buelatu



# | GRAL/MAL-en kotutorizazioak

Ikasleek aukeratu duten GRALa/MALa kotutorizatzeko aukera eskaintzen dugu, bai eta, nahi izatekotan, MgEk landutako gai batzuk proposatutakoa ere, ikasleak eta irakasleak ez ezik, gizarte erakundeak ere inplikaturiko diren egitura triangular baten alde eginez, horrek dakarren balio erantsiarekin eta izaera eraldatzailearekin.

■ PROPOSATUTAKO  
GAI ZERRENDA

**DESCARGA**  
Listado de temas propuestos



■ AURREKO LANEN  
ADIBIDEAK

**DESCARGA**  
Ejemplos trabajos anteriores



Hasierara  
buelatu



# | Bidezko Ekonomia baten formakuntza eta mobilizazioa

## MgErekin praktikak

**Osagai eraldatzaile sendoa duen prestakuntza-esperientzia.** Praktiketako pertsonak Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuetan parte hartzen dute, non **egungo sistema ekonomikoa zalantzan jartzen den eta ekonomia kritikotik alternatibak aztertzen diren.** Gainera, **Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sareetan integratzeko aukera dute**, bileretara joanez, eta eredu ekonomiko bidezkoago eta jasangarriago baten alde lan egiten duten espazio kolektiboak nola artikulatzen diren lehen eskutik ezagutuz.

Praktiketako ikasleak guztiz sartzen dira Mugarik gabeko Ekonomilariak-en taldean. Egonaldian, beren posta elektronikoarekin, harrera prozesuarekin eta praktiken jarraipen dokumentuarekin, beren interesen eta prestasunaren arabera egokitzeko, inplikaturako prozesuarekin ezarritako konpromisotik eta erantzukidetasunetik abiatuta.

**INFORMAZIO  
GEHIAGO**



# | Bidezko ekonomia baterako formakuntza

## Mobilizazio espazioak eta topaketak

### AURREZ AURREKO EKINTZAK

Gazteak ahalduntzea eta gaitzea, prestakuntza espazioen eta kasu praktikoen egokitasunaren bidez

Pasaden edizioak:

[EHUko Udako ikastaroa 25](#)

[Beste Ekonomia bat abian da 25](#)

[Udako eskola 25](#)

Ekintza hauek urtero egiten dira.  
[2025/2026 edizioetan parte hartu nahi baduzu jarri zaitez gurekin kontaktuan.](#)

### EKONOMIA BETAURREKO KRITIKOEKIN IRAKURTZEN

Blog honetan, liburuen bidez egungo sistema ekonomikoaren analisisa egin eta ulertu nahi dugu.

Ikuspegi kritiko batetik eta alternatiba ekonomiko bidezkoagoak, solidarioagoak eta jasangarriagoak sustatu eta eraikitzena begira, irakurri eta gomendatzen ditugun liburuei buruzko aipamenak eginez.

[Sakatu hemen Blog-ean sartzeko](#)



### CURSOS FORMATIVOS CON LA UNED

[Desintegrazioa bizkortzea: krisia, neoliberalismoak eta estremismoen gorakada](#)

2025eko irailaren 24an

[2030 Agenda zeharkakotuz unibertsitateko irakaskuntzan](#)

2025eko urriaren 3tik 17ra

[Pertsonen zerbitzura dagoen ekonomia baterantz](#)

2025eko azaroaren 3tik 2026ko ekainaren 6ra

[Informazio gehiago](#)



# Baliabide didaktikoak

Eskuliburuak ekarpen xume baina baliagarria egin du, sei korrante ekonomiko heterodoxoren ideia eta proposamen nagusiak modu ulergarrian ezagutaraziz: **ekonomia ekologikoa, ekonomia feminista, ekonomia instituzionala, ekonomia marxista, ekonomia postkeynestarra eta garapenaren ekonomia.**

Gure ustez, lehen hurbilketa hori baliagarria izan daiteke bai Ekonomiako irakasleentzat, baita lehen aldiz eskola heterodoxoetara hurbiltzen direnentzat eta; hala, horrekin **justizia soziala, kalitatezko hezkuntza eta zabaltze demokratikoa** bermatzen duen proiektu batera heldu ahal izatea espero dugu.

## KORRANTE HETERODOXOEN ESKULIBURUA



# Baliabide didaktikoak



## 2030 AGENDA ZEHARKAKOTUZ

Euskadiko Mugarik gabeko Ekonomilariak-ek gida praktiko hau aurkeztu du **2030 Agenda eta GJHak Unibertsitatera hurbiltzeko**, ikuspegi kritiko eta eraldatzailetik. Dokumentuak honako hauek eskaintzen ditu:

- Krisi ekosozialari eta Unibertsitatearen zeregina birpentsatzeko beharrari buruzko **marko teorikoa**.
- **Proposamen didaktikoak** eta hainbat irakasgaitan aplikatzeko prest dauden jarduerak.
- Irakaskuntzan eta ikerketan **genero ikuspegia, jasangarritasuna, ikuspegi dekoloniala eta justizia soziala txertatzeko ideiak**.
- Ikasgeletara eta ikerketa-proiektuetara zeharkakotasuna nola eraman erakusten duten **baliabideak eta adibide praktikoak**.


Tresna hau **irakasleentzat, ikertzaileentzat eta unibertsitateko komunitate osoarentzat pentsatuta dago**, eta herritartasun kritikoa eta eraldaketa sozialarekin konprometitua prestatu nahi du.

# Baliabide didaktikoak

## UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZARAKO BALIABIDEAK



Sakatu irudian sartzeko



Sakatu irudian sartzeko


Balibide hau erabiko duzu? Komentatu hemen!

# Baliabide didaktikoak

## UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZARAKO BALIABIDEAK



Sakatu irudian sartzeko



Sakatu irudian sartzeko

# Baliabide didaktikoak


## EKONOMIAREN IRAKASKUNTZAREN DIAGNOSTIKOA ESTATU MAILAN

Argitalpen hauek goi-mailako irakaskuntzak esparru ekonomikoan duen pentsamendu ortodoxoaaztertu eta ikusaraztea da helburua, bai eta aniztasunari, diziplinartekotasunari etazeharkakotasunari buruzko proposamenak identifikatu ere.

Balibide hau  
erabiko duzu?  
Komentatu  
hemen!

### Unibertsitatea 2030 Agendaren esparruan:

BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA UNIBERTSITATEKO  
IRAKASKUNTZAN ETA IKERKETAN INTEGRATZEKO APUNTEAK




Economistas  
sin Fronteras



Sakatu irudian sartzeko

### Ekonomia kritikoko unibertsitate- irakaskuntzaren eta egungo erronken arteko konexioari buruzko diagnostikoa:

MUGAK INGURUNE INSTITUZIONALEAN,  
IRAKASLEEN ESTRATEGIA PEDAGOGIKOAK ETA  
IKASLEENTZAKO EGOKITZAPENA.




Economistas  
sin Fronteras



Sakatu irudian sartzeko

### Investigación-diagnóstico sobre la situación de la enseñanza de la Economía

EN EL SISTEMA UNIVERSITARIO PÚBLICO ESPAÑOL



Economistas  
sin Fronteras



Sakatu irudian sartzeko

# ELNIDO

## Hezkuntzarako eta ekintzailetzarako plataforma birtuala

Bizitza erdigunean jarriko duen ekonomia batean interesa duten **hezkuntzako eta tokiko garapeneko eragileak eta ekintzaileak** harremanetan jartzeko sarea.

Atal berri bat ireki dugu estatu osoko BHletako irakasleak harremanetan jartzeko, materialak eta informazio erabilgarria partekatzeko.



Sakatu irudian sartzeko



# Zure gelan ideia hauek martxan jartzeko elkarrekin lan egitea nahi duzu?

Irakasle talde aktibo baten sorrera martxan jartzen ari gara, gure hezkuntza jardueren inguruan lankidetzan parte hartzailerako gune bat sortzeko helburuarekin. Talde horrek aukera emango du **garatzen ditugun saioei, eskaintzen ditugun edukiei eta ikasleen behar zehatzei buruzko hausnarketak eta proposamenak partekatzeko.**

Parte hartu nahi duzu?



Gure proposamenaren edukiren bat interesgarria iruditzen bazaizu eta gurekin harremanetan jarri nahiko bazenu. Horretarako, bitarteko hauek erabil ditzakezu:

 722 37 16 33

 [ecosfron.euskadi@ecosfron.org](mailto:ecosfron.euskadi@ecosfron.org)

 BILBOKO EGOITZA  
Harrobia Plaza 4, 2<sup>a</sup>  
solairua 48003 • Bilbo

DONOSTIAKO EGOITZA  
Iruresoro Plaza, 2, 4,  
20012 Donostia, Gipuzkoa



Mugarik gabeko  
Ekonomilariak



Economistas  
sin Fronteras

